

## **EUSKAL LITERATURAREN INGURUAN: MENDE HASIERAKO «LITERATURAS MORTAS»**

Mende honetako hasieran erruz ezagutu izan den jazokun nazioartekoa dugu euskara eta euskaldun literaturarekiko grina eta jakinminia. Han-hemenka barreiaturiko jakintsuak hurbildu ziren euskararen eremura, europear textuinguruaren honen bakantasun linguistikoak, ezaugarri bereziek eta superbibentzi miresgarriak suposatzen zutena sakonago aztertzeko asmotan. Halare, jakingura hori, ez zen neurri berekoia izan literatura edo filologia mailetan. Bigarrenean, kanpotikakoek eginiko azterketak ugariak izan baziren ere, lehendabizikoan askoz urriagoak gertatu ziren miaketak. Filologia gailendu zen gehienbat ikerketan, garaian garaiko literatura hiruzpalau izenen aipamenak baztertuz geroz.

Aro honetan kokaldia duten liburuak irakurtzen oso gerretaera nabaria dugu hauxe. Horrela ere jokatzen da eskuartean eta ohartxo honetarako erabili dugun liburutxo ohargarri baten: «Litteraturas mortas» du izena, portugaldar batek idatzia eta bere baitan, orduko sasoian autorearen ustez erdi hilak ziren lau literatur eredu ikuitzen dira, hots galiziarr, katalandarr, euskaldun eta italiarr literaturen eremuak. Laurak ere, autorearen esanetan, berbizkunde bideetan abiatuta, geroko etorkizun hobeago baten bila zuzenduta.

Halako liburu bat portugaldar baten lumatik etortzea arra-

ro samarra izateaz gain badu bestetik ere, bere arrazoitxoa, egi-leak honela azaltzen diguna:

«Com efeito, mas desataviadas paginas que a seguir vão, encontrará o leitor curiosos informes, ao parecer novos e interessantes, acerca das originalíssimas literaturas catalã, galega, italiana e vasca, com um estudo, conscientiosamente feito, sobre a lingua e marcha evolutiva dos povos respectivos».

(11. orr.)

Liburua gainera sasoi hartako politiko ezagunei dedikaturik dator, alegia, Canalejas spanishar ospetsuari eta Arriaga eta Machado portugesei. Beraz mugaren bi aldeko agintariak ditu googoan idazleak eta nonbait, ikuspegi «iberiko» batetatik ari zaigu.

Baina idazlea bera nor dugu? Jose Cervaens y Rodriguez da izen-deiturez gure lumaduna, portugaldarra, esanda dagonez: Porto-n bizia eta hainbat ekintza politikoetan sartua. Jon Bilbao-k, alabaina ez digu bestelako zehaztasunik ematen bere Eusko Bibliografian:

«CERVAENS RODRIGUES, Jose, *Litteraturas mortas. Breves estudios sobre as litteraturas gallega, euskara, italiana e catala*. Porto, 1911 (388 pp.)».

Enciclopedia General Vasca-k ere ez du beste berririk, hauxe baino:

«CERVAENS RODRIGUES, José. Autor de la obra *Litteraturas mortas*, Porto, 1911, pp. 338, que comprende varios estudios sobre las literaturas gallega, vasca, italiana y catalana. Ref. J.B.»

Ezin jakin ba, hortatik berri zabalagorik. Bainha liburuaren aldetik nabaria da bere data, 1911. urtea eta inprimalekua, Oporto. Jakingarri ere, liburuaren data ikusirik, orduko euskal literaturaren kezkak osorik ez agertzea. Izan ere, badirudi autoreari axola gehiago ematen diola olerkigintzak beste ezein literatur motak baino. Egitan, olerkariak ez eze, hitz lauzko autore

euskaldun gutxi aipatzen bait du bere orrialdeetan eta bereziki lerro handitan aipaturikoen artean, batere ez.

Euskararen edukina duten orrialdeetara joanda, ohargarria da, baita ere, aldi hartako euskal literaturaren giro aranatarra gorora ez ekartzea. Ez agertzearen, Sabino Aranaren izena ere ez da agertzen euskal munduari dagokionean eta ez noski, bere iduriko hainbeste euskal idazlearen izpi edo islada nimifiorik ere.

Edukinaren aldetik, liburuak baditu bere berezitasunak, eta lehen esan legez, 1911. urtean datatua izan arren, gehienbat mende biren arteko uztarria aztergaitzat hartzen duela esan daitake.

Hiru atal nagusi ditu berc barnean:

- A) Lehena, euskararen deskribapena.
- B) Bigarrena, euskal literaturaren azterketa, gehienbat olerkigintzatik bideratua.
- C) Euskal textuen antologia eta textuen beren portuguese-razko itzulpena.

#### A) Euskararen deskribapena

Hasten du idazleak bere ibilaldia euskararen aintzinatasuna erakusten, eta auzi horri buruzko teori multzoa paperetara aldatu eta gero, hizkuntzaren prolematikan murgiltzen da, garbiki adierazteko euskarak, kulturaren aldetik ezein hizkuntzak behar dituen baldintzak eduki ez dituela historian zehar; jarraian ondorio garrantzitsu batera heltzeko:

«Derivado o vasconço, como todos os idiomas nespanhoes, á exceção do castelhano, de estado civil; restringido pelo processo histórico, ao pobre e aspero territorio que duas famosas nações absorveram; reduzido a ser órgão de comunicação puramente familiar de montanheses, para os quaes o dilema da lucta pela existencia se mostrava em toda a sua brutalidade, foi impossivel que aquella língua, formosa como puocas, se adornasse com as primícias de rica literatura.»

(84-88. orr.)

«A incorporação do Senhorio da Vizcaya e das províncias de Alava e Guipúzcoa e a posterior da Navarra na coroa de Castella, assim como a incorporação do Labor, do Viscondado de Sola e da Merindad de Ultrapuertos na coroa de França, estabeleceram para todo o paiz vascongo um estado de cousas semelhante: a supremacia política conferida a um poder nacional que não era euskarro».

(88. orr.)

### B) Euskal literaturaren azterketa

Egoera honen emaitzak dira, besteak beste, euskarazko literaturak jasaten dituen eza eta gabetasunak. Hildo honetatik eta gaur harrigarria iruditzen bazaigu ere, Echeparek egindako lehen euskal liburuaz honela dio:

«As poesias eroticas e religiosas de Bernardo de Echepare, impressas em 1545, de modesto valor literario, passaram á categoria de curiosidade bibliographica, com a honra de ser o primeiro livro vascongo, que fez gemer os prelos».

(89. orr.)

Ezin du, alabaina, Axularren «Gero» gaitzetsi eta lanoki gorapatzen du azken hau, betidanik euskal letren lehentasuna izan duena:

«Mas o insigne Axular no Gero (1643), deixou bem assinalado neste livro admiravel, ainda hoje lido correntemente na região vasco-franceza, que a lingua euskara tinha formas para enunciar as doutrinas mais elevadas da theologia moral e dogmatica, traduzir, sobria e exactamente, os textos dos autores sacros e profanos antigos, raciocinar com eloquencia, magestade, abundancia e precisão, e adornar-se com todas as galas dos idiomas classicos».

(89. orr.)

Ez du, ordea bitartekorik onartzten eta Axularren liburutik ahozko olerkigintzaren arlora igarotzen da, honen esanahiaren lehentasuna azpimarratzeko euskal munduan. Honela eta letra

handitan bertsolaritza jartzen du bere xedeen erdiko kokagune bezelaxe:

«A poesia popular vasconça mansamente nas zonas medias da sensibilidade humana. O koblari, pela humildade da sua classe, o morigerado de seus costumes e estabilidade da sua posição, encontra-se a coberto d'essas ruinas que os reveses de fortuna e as paixões abrem em caudas nos carões de outros poetas, arrancando-lhes clamorosos lamentos. E ainda menos o rondam as missões do hierophante, a docencia do vidente e os problemas do philosopho.

«Canta, de preferencia, o amor, a placida existencia do rustico, a natureza, a independencia pessoal. Tira as imagens dos objetos e seres que o rodeiam, e são, de si, belos: passaros, flores, arroios, bosques, montanhas, astros, o bramir do oceano e o pallido luar. As suas notas mais profundas exhalala-as a sensibilidade. A sua imaginação é socegada, limpida, pouco inventiva e constructora. Carece do dom da eloquencia; em compensação nunca declama nem exagera. Gosta do genero lyrico e dos chamados de transição: a elegia, a satyra, a poesia bucolica; o prosaismo e a preocupação prática encaminham-na para a fabula. Teve a concepção perfeita do genero dramático. O embrionario theatro euskaro (reduzido ás pastoraes suletinas) é todo movimento, lucta e acção; pinta caracteres por meio do dialogo. A acção, sempre a acção, nem sempre coerente, verdade.»

(91. orr.)

Hemendik gero gure portugaldarra euskal literaturaren errepidetik ibiltzeko Felipe de Arrese y Beitia ikertzen du sakon eta luze, gerokoan Iztueta eta (iarritu zaitez irakurle!) Arzac euskal autoreen azalpenak egiteko. Hirutasun olerkari honetan oinarritzen da Cervaens bere ideia literarioak erakusteko. Eta batipat Arresearen «Ama Euskeriaren liburu», Iztuetaren «Konchesi» eta Arzac-en «Maricho» poematan bere ondorioak ateratzeko. Agerian da, bestalde, azken honi orduan zeukan ospea onartzan diola, gerokoan, agian, euskal literaturaren eremuan galdu duena.

Igaro da ostean gure portugaldarra, euskal literaturaren bidetxidorren barne, ez ohizko atal bat formulatzera, hots, *euskal emakume idazleena*. Eta horra hor, nondik dakarzkigun gogora egun sarri entzuten dugun kezka. Horretarako hilaran, eta ondo ehotuak, hiru lore euskaldun ditu adibide: Bizenta Mogel alegilari ezaguna, Rosario Artola eta Francisca Ignacia de Arrue, azken bi hauek ezezagunagoak (ikus bestela Aita Onaindiaren «Milla Euskal-Olerki Eder»). Non datza, bestalde, Cervaens-ek aitortzen digun euskal emakume idazleen urritasunaren arrazoa? Autorearen ustetan ez dago emakume edo herriaren izatean, gizartean baino:

«*Nada ha, portanto, que attribuir á incapacidade artística a escassez de escriptoras vascas. A causa d'esta escasez temos que ir busca-la em outra parte: no meio social, no carência dos grandes centros de cultura litteraria, até nos mesmos relevantes dotes da mulher vasca para administradora da sociedade domestica, porque, atarefada nos labores honrosos e dignificadores do lar, não podia consagrarse a outras occupações mais amenas, por certo, mas tambem menos importantes, menos transcendentaes e menos imprescindiveis na ordem da vida».*

«*Nunca foi grande o numero de escriptoras vascas, mas não certamente por incapacidade artística. A mulher, sobre tudo guipuzcoana, sabe sentir e pensar com rectidão, e não lhe são estranhos, antes, pelo contrario, familiares, os sonhos e aspirações que se alimentam dos esplendores do ideal. As nevoas quasi perpetuas que só pelas clareiras deixam brilhar o sol fazendo desejar e amar com mais força os seus vividos reflexos, infundem no animo vagas inquietações, anhelos d'um mundo melhor, suavissimas e poeticas tristezas alternadas e ennobrecidas por esperanças immortaes. N'um paiz onde as nevoas são tão mudaveis e caprichosas, onde os accidentes da paisagem, a infinita variedade de matizes de que a natureza se reveste, teem um encanto ineffavel, o espirito da mulher não pode ser estranho aos purissimos deleites da Arte. As singulares disposições da mulher vasca, para*

*o cultivo da arte musical, são prova irrefragável do que vimos afirmando».*

(104. orr.)

Lau idazle datoziñgu, azkenez, egilearen eskutik, euskal literaturaren ikuspegi hau borobiltzeko: Iturriaga, Iparraguirre, Vilinch eta Elizanburu. Ikusten denez, azterlariaren xedeak eta jomugak poetak dira. Azkenez euskal literaturari dagokion saila bukatzenko Francisco Iturribarri erdal poetaren aipamen luze bezain astuna egiten du gure portugaldarrak.

### C) Euskal textuen antologia eta portugeserazko itzulprena

Hirugarrena da, ezbairik gabe, zatirik ohargarriena eta bereziena, bertan biltzen bait dira euskal literaturaren atal batzuk, beren portugeserazko itzulpen eta guzti.

Irakur dezagun, adibidez, Iparragirreren «Gernikako Arbol» olerkiaren lehen ahapaldia Miño erreka bestaldeko hizkuntzaz:

*Guernikako Arbola  
Da bedeinkatua,  
Euskaldunen artean  
Guztiz maitatua.  
Eman ta zabaltzazu  
Munduan frutua,  
Adoratzen zaitugu  
Arbola Santua*

*A arvore da Guernica é um  
symbolo bemdito a quem amam  
com entranhado amor todos os vas-  
coños.*

*Arvore santa, estende e propa-  
ga os teus fructos pelo mundo. Nós  
te adoramos com o mais vivo fervor.*

(139. orr.)

Edo eta Elizanbururen «Ikhusten duzu goizean» poetikotasunez beteriko hura, Camoens-en berbakeran:

*Ikhusten duzu goizean,  
Argia hasten denean,  
Mendito baten gainean  
Etche tikitó aitzin churi bat  
Lau haitz andiren artean,  
Iturriko bat aldean,  
Chakur churi bat athean?  
Han bizi naiz ni bakean.*

*Vês ao nascer d'aurora sobre  
uma collina, uma casinha muito  
branca, rodeada de quatro grandes  
robles, com una fontezinha ao lado  
e um cão branco à porta? Pois alli  
vivo em santa paz.*

(145. orr.)

Honela amaitzen du Cervaens-ek bere sarrera euskal letretan. Badirudi, lehen so batetan bederen, zituen oinarriak oso konkretuak zirela: Campion, Echegaray... berauek aipatzen bait ditu behin eta berriro bere textuan zehar: halaber, beti elkarlotzen ditu euskal literaturaren edukina sasoi hartako beste literaturen eta literaturgileen adibideekin. Honela Heine, Lamartine, Virgilio, Musset eta abar luze bat noiznahi eta nonhai ditugu agerlari liburu honen orrialdeetan, ez dakigu autorren ezagupenak erakusteko gogo soilaz ala literatura konparatuaren lehen oinarriak bezalaxe.

Zernahi gisaz ere, bego hor, jakingari legez eta Euskal Herrikit oso hurrun ez dagoen hizkuntza batez emanda, euskal literaturaren kondaira bitxi eta zenbait kasutan harrigarri baten irakurketa soila.

*Andres Urrutia*